

Gobernuak **500 milioi** eurora arteko finantzazio-ildo berria jarri du enpresen eskuetan, **Elkargiren abalekin** babestua

## **Kutxabankek Jaurlaritzak eta Elkargik ETE-en eta autonomoen babeserako sortutako finantzazio-ildoarekin bat egingo du**

- **Aldaketak ezarri ditu ezaldi-epearen eta amortizazio-epearen gainean, epealdi biak zabaldu egin baitira. Gainera, jadanik gauzatutako maileguak malgutzeko aukera ematen du**
- **300 milioi euro zenbateko txikiagoko maileguetara bideratuko du, tamaina txikiagoko enpresentzat eta autonomoentzat**

**2021eko otsailaren 22an.** Kutxabankek bat egingo du Jaurlaritzak eta Elkargik sortutako finantzazio-ildo berriarekin, Koronavirusaren krisiak gehien eragin dien enpresen likidotasuna bermatzeko eta, beraz, enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei finantzazio berria ematen jarraitzeko. Ildo berri honek **500 milioi** eurora arteko zuzkidura izango du. Gainera, **bi urtera arte zabalduko du ezaldiaren-epea**, eta **sei urtera arte amortizazio-epea**.

2020ko udaberrian sortutako lehen ildoan gertatu bezala, Elkargiren programa honetan lankide den elkarrekiko berme sozietatearen abala duten eragiketak sustatuko ditu Kutxabankek. Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten enpresek eta autonomoek bideratutako eskariak tramitatuko ditu Elkargik, ekonomia alor guztietan.

Deialdi berri honen berrikuntza nagusietako bat da kopuru txikiagoko maileguetarako **300 milioi** euro bereiztuko direla, hau da, **5.000 eta 25.000** euro arteko maileguetarako. Hauek tamaina txikiagoko enpresei eta langile autonomoei bideratuko zaizkie, arinagoa eta eskatzeko errazagoa izango den prozesu batean.

Oro har, interesa duten enpresek **5.000 eta 1.000.000 euro** bitarteko maileguak lortu ahal izango dituzte tamaina txiki eta ertainekoak badira, eta **100.000 euro** artekoak norbanako enpresariak edota autonomoak badira.

Finantzazio ildo hauek **sei urtetan** amortizatu ahal izango dira, aukeran **bi urteko ezaldiarekin**. Eragiketa guztien finantza-kostua **%0koa** izango da, interes tipoa Administrazioak hartuko baitu bere gain, eta ez dute bestelako gainkosturik edo komisiorik izango. Mailegua jasotzen dutenek, aldez aurretik amortizatu edo itxi ahal izango dute,

hau ere inolako kosturik gabe. Horrez gain, programaren lehen fasean sinatu ziren maileguak malgutzeko aukera ematen du, finantzazio-ildo berriaren baldintzetara egokituta.